



ARAUTEGIA 2013

FUTBOL 11 (Partaidetza ibilbidea)

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, Durangon, Landako futbol zelaian 2013ko maiatzaren 25 eta 26 eta ekainaren 1ean. Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Liga sistema, itzuli bakarrekoa.

Mailak:

Infantilak: 1999 eta 2000an jaiotako mutilak.

2. EKIPOEN OSAKETA

Ekipoak honela osatuko dira: gehienez 20 jokalaria, delegatu bat eta entrenatzailea.

Aktan 18 jokalaria agertuko dira.

Ekipo bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bateratasunik gerta ez dadin.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Partiduak hogeita hamabostna minutuko bi zati izango ditu, hamar minutuko atsedenaldi batekin. Lehenengo zatia 17 minutu eta 30 segunduko 2 tartetan banatuko da, 2 minutuko atsedenarekin. Jokalari bakoitzak zati bat jokatu beharko du gutxienez. Salbuespenak hauek izan daitezke:

- Lesionatutako jokalaria.(Jokalari batek atentzioa jaso arren, aldaketa egiteko beharrik ez dago, jokoan bi minutuko edo gehiagoko etena ematen ez bada).
- Kanporatutako jokalaria.

Partiduan zehar zazpi jokalaria ordezkatu ahal izango dira. Ligaren azken sailkapenean berdinketarik gertatu ez dadin, emaitza edozein delarik ere partiduaren amaieran ekipo bakoitzak bost penalti jaurtiko ditu.

4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO

ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

⇒ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

- 1º- Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidaren lortutako emaitza
- 2º- Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
- 3º- Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
- 4º- Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
- 5º- Partidaren lortutako aldeko golak guztira
- 6º- Aldeko penaltiak guztira
- 7º- Desberdintze partida

⇒ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

- 1º- Berdindutako taldeen arteko golen aldea
- 2º- Berdindutako taldeen arteko penaltien aldea
- 3º- Berdindutako taldeen artean gol gehien sartu dituenak
- 4º- Berdindutako taldeen artean penalti gehien sartu dituenak
- 5º- Partida denboran zehar sarturiko gol guzuen aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 6º- Penalti guzuen aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 7º- kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituenak
- 8º- kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituenak
- 9º- Zozketa

5. BALOIA

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.

6. FUTBOL ZELAIA

Txapelketaren programan azaltzen denaren arabera.

7. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako ekipoei.

8. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

9. AZKEN OHARRA

- a) Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:
14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
- d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2013ko urtarrilaren 14ko Agindua, 2013ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak, 2013ko otsailaren 11ko Ebazpena, 2013ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezker, gaztelaniazkoa lehentasuna izango du.